ALHAO ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN **ALDIZKARI OFIZIALA**

2018ko apirilaren 20a, ostirala • 45 zk.

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

DONEMILIAGAKO UDALA

Donemiliagako udalerrian seme-alabak jaio, adoptatu edo harreran hartzeagatik ematen diren laguntzen deialdia jasotzen duen 2018ko martxoaren 14ko erabakiaren laburpena

BDNS (identifikatzailea): 393466

Azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak, dirulaguntzenak, 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan aurreikusitakoarekin bat etorriz, argitara ematen da deialdiaren laburpena. Haren testu osoa Dirulaguntzen Datu Base Nazionalean dago ikusgai: http://www.pap.minhap.gob.es/bdnstrans/es/index.

Helburua:

Dirulaguntzak ematea Donemiliagako udalerrian umeen jaiotza, adopzioa edo harreran hartzea dela-eta, udalerria osatzen duten herrietan belaunaldi berritzea ziurtatzeko xedez.

Onuradunak:

Umea jaio edo adoptatu aurreko bi urteetan, jarraian, Donemiliagako udalerrian erroldatuta egon diren eta bertan bizi diren aitak, amak, legezko tutoreak edo harrera familiak.

Betekizunak:

— 2017ko urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra bitartean (egun biak barne), Donemiliagako udalerrian jaiotako eta erroldatutako umeak izatea.

— 2017ko urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra bitartean (egun biak barne) Donemiliagako udalerrian erroldatuta dauden adoptatutako edo harreran hartutako umeak izatea.

Laguntzaren eskatzaileak, laguntzaren onuradunak, udalerrian bi urte jarraian eraman behar ditu erroldatuta, umea jaio, adoptatu edo harreran hartu aurretik, eta bai berak bai umeak erroldatuta jarraitu behar du beste bi urtez, gutxienez, jaiotza edo adopzioaren ondoren.

Oinarri arauak: Donemiliagako Udalbatzak 2018ko martxoaren 14ko bilkuran onartuak.

Laguntzaren zenbatekoa: deialdi honen zuzkidura 2.000,00 euro da. Laguntzaren zenbatekoa 500,00 euro izango da.

Eskaerak aurkezteko epea: eskaerak eta agiriak Donemiliagako udaletxean aurkeztu behar dira, astelehenetik ostiralera, 09:00etatik 14:00etara, 2018ko uztailaren 31 arte.

Erdoña, 2018ko apirilaren 10a

Alkatea
DAVID LÓPEZ DE ARBINA RUIZ DE EGUINO

L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

Firmante: CN=DIRECCION DE SERVICIOS GENERALES, SERIALNUMBER=P0100000I, OU=sello electrónico, OU=ZIURTAGIRI ONARTUA - CERTIFICADO RECONOCIDO, O=ARABAKO FORU ALDUNDIA-DIPUTACION FORAL DE ALAVA, C=ES
Emisor del certificado: CN=EAEko HAetako langileen CA - CA personal de AAPP vascas (2), OU=AZZ Ziurtagiri publikoa - Certificado publico SCA, O=IZENPE S.A., C=ES
Número de serie: 108017
Fecha de firma: 2018.04.20 05:33:02 Z